



EUSKO JAURLARITZAK, ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EUSKARAZKO HEDABIDEAK FINANTZATZEKO HITZARMENAREN LEGEZKOTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

101/2018 DDLCN – LT

I.- AURREKARIAK

Derrigorrezko Legezketasun Txostena eskatu egin zaino Lege Garapen ete Arau Kontrolerako Zuzendaritza honi adierazitako hitzarmenari buruz.

Horrekin batera honako dokumentuak erantsi dira:

- Hitzarmen zirriborroa.
- Memoria justificatiboa eta memoria osagarria.
- Txosten juridikoa.

Gobernantza publiko eta Autogobernu sailaren baitan kokatzen den Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, honako txosten hau ematen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen 24/2016 Lehendakariaren Dekretuak, azaroaren 26koak, 6.1 h) artikuluan delako sail horri esleitutako funtzioen arabera. Eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 71/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, bere 14.1 c) artikuluan, zein Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuak, apirilaren 25ekoak, bere 7.1 c) eta 9 artikuluetan, ezartzen denaren arabera.



II. AIPATUTAKO HITZAMENARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENAREN DERRIGORTASUNA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko hitzarmena izaki, eta guztiak Administrazio Publikoak direlarik, lehen aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuak, apirilaren 25ekoak, honela dio 13.1.b) artikuluan:

“Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio nahitaezko legezkotasun-txostena egitea hitzarmen-proiektuak direnean, diru-laguntzetakoak barne, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek edo erakunde instituzionalek izenpetu behar badituzte beste hauekin:

b) Beste administrazio publiko batzuk eta horiei lotuta edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeak.

Hortaz, legezkotasun txostena ematea dagokio Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari.

III.- IZAPIDETZE ETA ESPEDIENTE ADMINISTRATIBOARI BURUZ

Legezkotasun txostena eman aurretik, espedientean bildutako dokumentazioari buruzko iritzia eman behar da, aipatutako 144/2017 Dekretuaren 13.3 artikulua araberak, zeinak honela dio:

*Legezkotasun-txostena nahitaezko duten prozeduretan, txosten hori eskatu aurretik, gainerako irizpenak eta txostenak lortu behar dira, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena izan ezik. Ekimenaren espediente osoa bidali behar da eskaerarekin batera; espedientea, **funtsan, puntu hauek jasotzen dituen laburpen-memoria bat izango da:***

*a) **Txostenaren xede izan den ekimenaren behin betiko testua**, sailaren txosten juridikoarekin batera.*

b) Arau- eta jurisprudentzia-aurrekariak, ekimenaren sustatzaileak aztertutakoak edo kontuan hartutakoak.

c) Legezko xedapenek nahitaezkozat hartutako txostenak, kide anitzeko organoek, interes orokorra ordezkutzen eta defendatzen duten erakundeek edo beste administrazio publiko batzuek eginak.

d) Egindako kontsultak eta gainerako datu interesgarriak, txostenaren xede den testua egiteko prozesuaren berri izateko.

Horrekin bat, Memoria justifikatiboa eman eman da (bai hasierakoa zein gainerako osagarri bat), eta txosten juridikoa, Hitzarmenare zirriborro batekin batera. Hala ere hitzarmenaren testu difinitiboa izan arte, ezingo genuke agindutako betetzat eduki.

Hala ere, horren arabera hemen ematen diren balorazioak behin behinekoak badira ere, gure hasierako analisia jarraituko dugu emandako testuaren gainean.

Esan bezala, testuarekin batera haren zergatiaren berri ematen duten memoria bi eransten dira, txosten juridikoan egindako iruzkinei ere erantzuten dietenak. Hala ere, uste dugu memoria horiek ez dutela 144/2017 Dekretuak esaten duen laburpen memoria egiteko betebeharra asetzen, eta hortaz berriro azpimarratzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari kasu honetan bidali zaion ekimen hau amaitugebea dela.

Aurkeztutako memoria horien azterketatik ikusten da sinatzaileek bilatzen dituzten helburuen azalpena eman nahi duela, jardun administratibo koerenteago, trinkoago eta koordinatuago baten bidez komunikabideetan euskararen erabilera bultzatu nahi dutenak, Euskararen normalkuntzarako 10/1982 Legearen zioekin bat eginez.

Hori esanda, Eusko Jaurlaritzaren jardunak aurreko errelitate bat gainditzea bilatzen du, gai honetan administrazio bakoitzaren jarduna banan banakakoa eta ekintza batasunik gabekoa izan izana, alegia.

Horregatik, bi zutabe nagusitan oinarritzen den estrategia jartzen da habían:

a) Administrazio bakoitzari dagokion jardunbide eremua zehaztea,

- b) Jarraipen batzorde baten baitan adostutako diru kopuru bat, komunikabideetan euskeraren erabilera soila bultzatzeko dirulaguntzak emateko.

Hala ere, faltan botatzen da memoria horietan Foru Aldundiekin emandako kontsulta eta izapidetze prozesuari buruzko eta horren emaitzei buruzko informazioa ematea, Eusko Jaurlaritzaren borondatea argi dagoen arren, ez baitugu ezagutzen Foru Aldundien balorazioa.

Eraberean, eta memoriaren habiapuntu bezala Hitzarmenaren eduki ekonomiko eza hartu arren, balorazio hori ezin da bere baieztapen hutsean geratu, txosten juridikoak ongi esaten duen bezala, Hitzarmenak etorkizunean ondorio ekonomikoak izan izango dituelako. Hori kontutan hartuta, zentzu hartzen du txosten horretan egiten den oharra, adierazitako ekimenak finantzatzeko urteroko diru kopuru horiek finkatzeko denbora eta aurrekontuen errealitatearen arteko desadostasun bat egon daitekeela dionean. Gauzak horrela, eta hitzarmena bete gabe uzteko arriskuaren aurrean, badirudi moldaketa batzuk beharrezkoak izango liratekeela, esaterako, aurreratutako erabakiari unean uneko ekitaldi ekonomikoaren indarreko aurrekontu araudiaren arabera baieztatu beharreko proposamen izaera ematea, adibidez.

IV.- GAI HONI BURUZKO ESKUMENARI BURUZ

Sailaren txosten juridikoak egiten duen Foru Aldundien gai honi buruzko eskumen ezaren gaineko aipuari gagozkiola, ezin da esan azaroaren 24ko Euskeraren erabilpena arauzkotzeko 10/1982 Legeak modu ertzi eta baztertzaille baten Eusko Jaurlaritzari eman dionik komunikabideetan euskararen erabilera bultzateko eskumena. Kontrara, botere publiko guztiak inplikatur daude lege horrek bereganatzen duen helburu horretan, txosten juridikoak era badioen bezala. Hori esanda, Eusko Jaurlaritzak bere eskumen eta arduda betetzen du, komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzeko helburu horretarako elkarlan batera Foru Aldundiak erakarriz. Adierazitako lege eraentzarekin erabat ados dagoen jarduteko modua berau. Zentzu horretan, kontutan hartzekoak dira memoria osagarrian Foru Aldundiek gai honetan izandako jardunaren aurrekarietarako buruzko azalpenak.

V.- EDUKIARI BURUZ

Aztertutako testuaren zirriborro izaera konmtutan, eta esandakoak ez errepikatzeko, honi buruz txosten juridikoan puntu honeta emandako legezketasun balorazioekin bat egiten dugu.

VI.- ONDORIOA

Egindako aipamen guztiekin, legezketasun txostena aldekoa ematen dugu.